

gaurkoan

Txillardegi (*)

zer

edo zer

Carral-dik Brussel-a


Orrialde eder asko idazten ari da gure herri zafratu hau azkeneko urte hauetan. Horieta bat *Brussel-ako Lehenengo Ibilaldia* izan da du-darik gabe. Lau mila abertzalek izenpetu dute; 40 orduetan, 3.000 kilometro eginez.

Nekez sinesten zuten brusedarrek begi aurrean zeuzkaten ehundaka ikurriña haiek, ordu pare batez lekukotasuna emateko helduak zirela harabino. Berriozar-ko joaldunek zurtzen zituzten bazterrak. Txalapartariak, dantzariak, ikurriñ mordo gaitz hura, dena zitzaizen harrigarri. "Grand Place" famatua inguruzten zuten alanbrada xixtrudunek ere bai, jakina: agintari ofizialek beldurra omen zuten...

Gauzak horrela, berri bat zabaldu da azkar "erromes" berri haien artean: Alberto Kapetillo Bera izeneko bat arrestatu dute.

Segituan flandriar abertzale lagunengana jo, bazkaria bertan behera utzi; eta, Walter Luyten flandriar senadorearen eskutik, komisaldegira joan gara. Grand Place-ren ondo-ondoko batimendura. Flandriar udaltzain batek azaldu ditu gauzak; eta enkarteritarra kalera. Lau orduz preso Europako hiriburuan... espainiar enbasadaren presioen on-doriatzat. Ohore hitsal!

Ez nekien, aitor dizuet jator, Kapetillo errekarik Euskal Herrian zegoenik ere. Extera iritsita, horixe begiratu



dut aurrenik. Carral gurutzatzen duen errekarik deritzo Kapetillo, Albertok berak azaldu didanaren arauera. Hain zuzen ere, Sopuerta-ko auzo batek ere izen horixe darama; eta ni naizen giputx ezjakin honek ez zekien... Barka enkarteritarrok!

Orrialde bikaina larunbategoa.

Eta aukera ona, ene ustez, Walter Luyten adiskideari eskerrik beroan emateko.

Are gehiago: Walter Luyten flandriar abertzalearentzat "Euskal Herriaren seme kutuna" izendapena eskatzeko. Orain dela urte asko (hogeitabost bat gutxienez) Walter abertzaleon laguntzaile fin eta nekagaitz agertzen delako.

Volksunie-ko eskuindarrenek "Vlaams Blok" faxistairera jo dute, eta partiduak boto mordo bat galdu. "Blok"eko zerrendaburu joatea proposatu zitoten Walter-i; baina honek ezezkoa eman

zuen: "Senadoretza galdu nahiago dut, ohorea baino", esan omen zien. Eta orain abertzale soil gelditu da. Baina ikastolen aldeko lanari eusten dio (aspaldidanik biltzen eta bidaltzen die diru-laguntzarik); eta prest omen dago, beti bezala, denean aburukide ez izanik ere, bere laguntza Euskal Herriari emateko.

Abertzaleen izenari: mila esker antz, Walter!

(* Idazlea)

Laudio

Laudio. Nerbio ibai zikin gizaixoaren ertzeko hiria. Nacional 625 horren bazterrean. A8 izen antzuko autopistaren hegalean. Gane-kogorta mendi biluziaren azpian. Hortxe da Laudio. Egunotan ospetsu bihurtu da. Baina ez, oraingoan ez da uraren uholdea ospe horren kausa, ez horixe, euririk ez dago eta. Oraingoan bestelako uholde bat da kausa, gorri-beltzeta hain zuzen. Gorri-beltzak bai, baina ez dira sandinistak, eta gainera ez datur uretatik, ke eta sirenen azetik baizik. Gorputzean uniformeak, esku batean burdinezko erraminta, bestean koraza antzeko maskorra, eta buruan moztarra, eguzkitiko argiak aurpegiko azala erreko balie bezala! Koloretan beltza nagusi, baina ez dira benetako akrotak, ez horixe, ez eta pirata jatorrak ere; doktrina berezi baten apaizak akaso bai. Labetik datoz eta buruan moztarra... jabezomorroak bailiren!! Laudio-ko zenbait fabrika egoera larri eta gorrian dago. Ixtear. Eta jakina, langileak gutzit haserre, lanetik gura baitute beren eta beretarren ogibidea atera. Fabrikak lantegi bihurturik ikusi nahi dituzte langileok, eta ez museo eginda, horretarako nahiko eta bastante baita Bilbon ezarri gura duten guggenheim hori. Baina ez dirudi jauntxoak horren aldeko apostua egiteko gertu daudenik, derrepente museozale amorratu bihurtu baitira. Eta langileak ilusioz beteta beren lanpostua defenditzera kaleratzen direnean horra hor, aurrez aurre beltzen tropela azaltzen zaiela, ilusioz ere, ordena omen den kaka zahar hori mantentzeko han-hemenka egurra banatzen. Baina ez, ez dute egurra dohainik ematen, ez horixe, soldatarren truke ematen dute eta. Bitartean, beste aldekoak, soldata ezaren ordainez dagoz egurra hartzera kondenaturik! honekin konparaturik askoz ere garbiagoa zen lantegietako tximiniei zerien ke iluna. Batak eta besteak, horietarik zeintzu diren benetako materia prima argi dago, ofiziozitsu ez denarentzat behintzat.

PRONTXIO

hemeroteka

Ez dur ulertzen

(Xabier Kintana
"Euskaldunon Egunkaria"n,
17-III-92)

(...) Hona hemen ene problema konponagaitzaren datuak. Luzaro, European nazio txikien autodeterminazioaren alde inortok ere ezer esaten ez zuenean, euskaldunok izan gara egoki eta desegoki geure boza altxatu dugunia bakar-rak, gure nazioaren burujabetasun-nahi itoa eta gainerako herri txikiak lau haizetara aldarrikatuz. (...)

Armada ultrakontserbadorreenganako beldur zaharra, bestealde, uxatu egin dute azken aldiotako aldaketa politiko demokratikoei. Ekialdean Armada Gorriak askatasuna armaz zapaltzerik izan ez badu, are gutxiago egingo du Europar Ekonomi Elkartearen mendealdeon gazterien in-tsumisio hazkorri neurririk jartzeko gai ez denak.

Bestalde, ez dirudi pentsatu behar dugunik gainerako nazio guztiak, salbuespenik gabe, txarretik txarrago pasatu nahi izateko bezain memeloko direla. Horrexegatik, sinesgaitz egiten zait independentzia hautatu duten nazio txiki horiek bide okerretik dabiltzala, guz-tiek, harrigarriko adostasunaz, lehenagoko botere zentraletik alde egirik hobeki bizitzeko asmoa dutela ematen baitu.

Alde horretatik, ez dut ulertzen zergatik orain hemengo politikari batzu esaten ari diren euskaldunok geure buruarren jabe izan nahi izatea miseri bide izan daitekeela, independentzia munduko gainerako nazi guztientzat erosoago bizitzeko bide bakarra den artean.

Gainera, Estatu zentralak, sezesionismoaren bide traumati-ko hori gerta ez dadin, hemengo jendeari konstituzio-al-daketa sakonik proposatu,

konfederazio-sistema beriren bat antolatuz, autogobernu-maila handiagoa eskaini edo autodeterminatzeko eskubidea onartzeko keinurik agertu izan baligu, ulertu egingo nuke, autarkiaren bide badaezpada-koaren abenturan barik, gutar-riko zenbaitzuek egiazko hobakuntza seguru horien untzian sartu nahi izatea, baina, dakusagunez. Madrilik Europako haize nazionalisten kontra egiten duena oso bestelakoa da: sua gasolinaz itzali nahi izatea.

Batetik, Autonomi Paktu berria, urria delako, ezin onartu izan dugu euskaldun-katalanok; bestetik industri berri-zapenerako negoziaketak gero eta okerrago doaz; geure Gobernutik bertatik botereko alderdikideek euskal hirtasunaren zutabe den hizuntza nazionalaren aurka eraso eta probokazio lotsagarri egiten dituzten behin eta berriro; au-

tonomi transferentziak aspaldian izozturik daude; terrorismoaren kontra proposatzen den irtenbide ofizial bakarra polizi bidezkoa da; hemengo komisaldegietan tortura praktikatzeko segitzen omen da...

Barkatu, jaun andreak, baina nik ez dut ezer ulertzen.

Ezin dut konprenitu Gobernu zentralaren jokabide eroa, horrelako tratu laidagarri eta itsuaz gu haiekin elkarturik mantendu nahi bagaitu behintzat. Eta are gutxiago entele-gatzen dut hemengoak izanez eta burua abertzaleztat agertzen duten beste horien apal-keria ixila, ahalmen-otapur mixerable batzu besterik mahairatzen ez zaigunean, geure herrian arrotz moduan trata-zen gaituzten horiekin eter-nalki loturik segitzeko eta gi-zatasunez zor zaigun burujabetasun osoa ez eskatzeko predikatzen digutenena.